


# ETXETIK LANEAN ARITZEKO GIDA



## 1. urratsa: Materiala lortu

Material guztia etxera eraman behar dut (kanpoko tenoreetatik at pusken xerka etor naiteke)



## 2. urratsa: Antolaketa egokia finkatu

Erritmoa aldatu behar dut: **egun bat dekalaturik** lan egin behar dut (adibidez astelehenetako kurtsuak asteartetan egin eta horrela, logika horretan jardun behar dut).



• **Testu kaiera** gelan egindako saioaren laburpen bat da, fitxak eta egin beharreko etxerako lanak agertzen dira bertan.

Easyscolen konektatzean, alboko barran: **egin klik «Ikasleak»** atalean eta ondotik, «**Testu kaiera**» atazan.

## 3. urratsa: Gaiez gaiko antolaketa berpentsatu


Bezperako kurtsu guztien **testu kaiera** ongi irakurri behar dut gelan zer egin duten jakiteko. Hori eginik:

- **Lehentasunak** markatuko ditut (oren gehien dituzten gaiak edota zailen zaizkidanak hautatu).
- Lan horiek egiten saiatuko naiz.
- Dena dela, **fitxak sailkatu**, itsatsi beharrekoak **itsatsi**, **beti** egingen dut.




## 4. urratsa: Laguntza eskatzea

Gairen batean **galdua** banaiz edota **lan egin ezin** badut, gaiko irakasleari idatziko diot Easyscol mezutegiaren bidez (alboko barran egin klik «**Mezularitza**»-n. Arazoa orokorra bada, zurkaitzari idatziko diot nire arazoaren berri jakinarazteko.



Testu kaieran izanik, edozein astetako informazioa eskura zenezake ataza honetan klik eginez (urteko zenbatgarren astea, noiztik nora, ageri da idatzita).



## Kolegiora itzultzean

- Materiala berriro ekarri.
- **Gai bakoitzeko irakasleari** zertan zaren aipatu (biziki garrantzitsua da hori, hark erranen baitizu zerbait egin gabe gera daitekeen ala ez).